

MUNBERRI

Mundu berri baten ikaskuntza.



Endika Ruiz de Arbulo, Laaraj Hajar, Laia Mateo eta Haizea Vicente
STARTINNOVA proiektua, Vitoria - Gasteiz
1 batxillergoa, 2022/2023

1. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure elkarteak, zenbait alderdi eta aspektuetan beste enpresa batzuen euskarria, babesa eta zerbitzuak behar ditu, funtzionamendu egokia izateko, arriskuak murrizteko, abantailak izateko eta baliabideak eskuratzeko.

Eustat elkartearen ezinbesteko laguntza jasoko dugu. Haien laguntzarekin hainbat bezero lortuko ditugu, benetan gure laguntza behar dutenek eta horrela gure proiektua zabaltzen lagunduko digute. Horren truke, haien elkarteak ikusgai egingo dugu, gure tailerretan, karteletan zein eskuorrietan haien elkarteak aipatzen.

Beste alde batetik, bigarren hezkuntzako ikastetxeekin bat egingo dugu, kasu honetan Los Herran ikastetxearekin hasiko gara. Tutoretza orduetan hizketaldi batzuk emango ditugu, eta baita hainbat ekintza egin ere.

Transazio finantzarioak eta enpresak hilero dituen gastuen eta sarreraren mugimenduak etab. menderatzeko, banku baten laguntza behar dugu, bertan kontu korrante bat irekiko dugu gure etekinak leku fidagarri batean edukitzeko. Diru laguntzak jasotzeko eta horrekin inbertsioak aurrera eramateko garrantzitsua da ere.

Argi dago gure enpresa aurrera atera dadin, estatuaren laguntza behar izango dugula. Vitoria-Gasteizko udalak negozio berrientzat diru laguntzak eskaintzen ditu, eta proiektu honen hasiera arrakastatsua izateko, diru laguntza bat eskatuko dugu. Gainera, gure tailerra eskainiko dugun Euskadiko Gizarte Etxe guztien laguntza behar izango dugu, hango instalazioak behar izango ditugu, bai eta guri uzteko prest egongo diren ordengailuak, mahaia eta ahulkiak.

Beste alde batetik, argi dago telebistako iragarkiak aspalditik direla edozein tamainatako negozioak zabaltzeko modu eraginkor eta erakargarriena. Gainera, teknologiaren aurrerapenei eta mugikor adimentsuei esker, edozein lekutatik ikus daiteke. Telebistako iragarkiak fidagarriagoak dira eroslearentzat eta baita metodo profesionalenatariko bat ere. Gaur egun, mugikorretan ikusgarriak diren iragarkiak ezinbestekoak dira zerbitzuak promozionatzeko, batez ere gure enpresak bilatzen duen publikoa erakartzeko. Gazteen artean aplikazioen erabilera oso altua denez, bertan promozionatuko gara.